

Indarkeria sexista Covid-19 krisian

Tokiko politikak indartzeko lan prozesua
2020ko apirila-maiatza



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputatu Nagusiaren Alorra



Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
1.1. Testuingurua.....	3
2. Lan prozesuaren deskribapena eta parte hartzea.....	4
2.1. Lan prozesuaren deskribapena	4
2.2. Parte hartze maila lan saioetan.....	7
3. Erreferentziako markoa	11
3.1. Analisi esparrua: elementu ezagunak eta ezezagunak.....	11
3.2. Osasun alarma dela eta sortutako egoeraren inguruko kontakizunak	12
3.3. Indarkeria sexista ikusarazten konfinamendu garaian.....	12
3.4. Indarkeria sexista konfinamendu garaian	15
3.5. Esku hartzeko proposamenak	17
4. Udalerrien egoera: zailtasunak eta praktika onak	22
4.1. Hasierako egoera – galdetegia	22
4.2. Prozesuan zehar jasotako informazioa: praktika onak.....	27
4.3. Udalerrien aholkularitza eskaerak.....	30
4.4. Indarkeria sexista kasuen sarrera-bideak konfinamendu garaian	31
5. Ebaluazioa	34
6. Prozesuaren sistematizazioaren emaitzak	37



1. Sarrera

1.1. Testuingurua

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasun Organoak, Covid19ari aurre egiteko ezarritako konfinamenduak indarkeria sexistaren esparruan duen eraginaz jabeturik, lurralde mailan eragiteko lan prozesu bat jarri du martxan. Premiazko neurriak eta lurralde estrategia artikulatzea eskatzen duen egoera berri honen aurrean, ezinbestekoa da irizpide amankomunetatik abiatuta konfinamenduan emandako indarkeria egoerak ulertzea eta interpretatzea.

Kaleratutako lehen irakurketa ofizialek, konfinamenduaren hasierako egunetan salaketak erdira jaitsi zirela adierazi zuten. Itxuraz positiboa den irakurketa honen atzean badago beste errealitate bat: konfinamendu egoeran zerbitzuetara iristeko eta hauek eskaintzeko eta moldatzeko dauden zailtasunak.

Egoera honetan indarkeria sexistaren inguruan irakurketa partekatu bat egitea funtsezkoa da, irakurketa horretatik erreferentziatzko marko komun bat landu ahal izateko. Era berean udalerriek indarkeria sexistaren esparruan dituzten zailtasunak jasotzea eta martxan jarri dituzten neurriak ezagutzea beharrezkoa da marko amankomun hori lantzeko.



2. Lan prozesuaren deskribapena eta parte hartzea

2.1. Lan prozesuaren deskribapena

2.1.1. Helburuak

Lan prozesua ondorengo helburuen arabera egituratu da:

Helburu orokorra

Gipuzkoako lurraldeko udalerriei **erreferentziatzko marko komun** bat eskaini egungo krisiak indarkeria sexistaren esparruan eragiten dituen ondorioak hobeto ulertzeko eta **modu koordinatu eta eraginkorrean aurre egiteko**.

Helburu zehatzak

- **Informazio bilketa** bat egin ondorengo eremuen inguruan: konfinamendu garaian indarkeria sexistari aurre egiteko garatzen ari diren **praktikak**; prebentzio politiketan eta arreta ereduetan egiten diren **egokitzapenak**; udalak identifikatzen dituzten **premia** zehatzak.
- Gaur egungo testuinguruan indarkeria sexistaren prebentzioaren eta arretaren arloko jardunbide egokiak artikulatzen laguntzeko **hausnarketarako, ikaskuntzarako eta lanerako espazio bat sortu**.
- Lurralde **oreka** bultzatu, **udalerrri txiki**en beharretara egokitutako estrategia komun bat sortuz.
- **Udalerriei lagundu eta aholkularitza eskaini**, Covid-19 krisiak indarkeria sexistan eragindako moldaketei erantzuteko estrategiak lantzeko.

2.1.2. Lan prozesuaren ezaugarriak

Aurreko helburuak lortu ahal izateko **bi mailatan lan egiteko beharra** identifikatu da, udalerriak modu honetan sailkatuz:

1. Alde batetik, berdintasun-teknikaria duten eta **berdintasun-politiketan ibilbide egonkorra** eta jarraitua duten udalerriekin.
2. Bestalde, biztanleria kopuru baxua dela eta, **baliabide urriagoak eta muga handienak** (ekonomikoak eta pertsonal espezifikoaren gabezia) dituzten udalerriekin.

Bereizketa hau kontutan hartuta ondoko **lan espazio hauek** jarri dira martxan:

1. Berdintasun egitura egonkorra duten udalerriei zuzenduriko lan espazioa.
2. 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei zuzenduriko lan espazioa.



2.1.3. Lan prozesuaren faseak

Deialdia: posta elektronikoaren bidez prozesuaren inguruko informazioa eta bertan **parte hartzeko gonbidapena** Gipuzkoako udalerrri guztiei helarazi.

Informazio bilketa: Gipuzkoako udalerrri guztiei, prozesua aurkezteko mezuarekin batera, galdetegi bat bidali da beraien **beharren inguruko informazio** zehatza eskuratzeko eta martxan jarritako neurri eta praktika egokiak identifikatzeko.

Lan saioak amaitu ondoren bigarren galdetegi bat bidali zaie prozesuan parte hartu duten udalerriei. Galdetegi honen helburua konfinamendu garaian ezagutu diren **indarkeria sexista kasuen sarrera bideak** identifikatzea izan da.

Lan saioak: Covid-19aren eragina indarkeria sexistaren esparruan ulertzeko erreferentziatzeko markoaren lanketa lan saio desberdinetan burutu da. Era berean, saio horietan udalerriek martxan jarritako esperientziak eta lanerako proposamenak jaso dira. Ondorengo hauek dira burutu diren lan saioak (guztira 4 saio):

Udalerrri handiak (10.000 biztanle baino gehiago) edota berdintasun arlo egonkorra dutenak:

Hiru lan saio: Lehena, apirilaren 15ean, udalerrietako berdintasun teknikariek. Bigarrena, apirilaren 23an, udalerrietako ordezkari politikoekin (berdintasun teknikarien partehartzea ere erraztu zen). Hirugarrena, apirilaren 28an, berdintasun teknikariek.

Udalerrri txikiak (10.000 biztanle baino gutxiago)

Lan saioa bat: Maila politiko-teknikoan (apirilaren 17an)

Aholkularitza udalerrri txikiei: Prozesuan parte hartu duten 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei aholkularitza telefonikoa eta on line eskaini zaie. Aholkularitza horren bidez jasotako zalantzak erantzun eta sistematizatu dira.

Prozesuaren sistematizazioa: Prozesuaren sistematizaziorako ondorengo ekintzak burutu dira:

- Lan saio bakoitzean landutako edukiak xehetasunez jasotzen dituzten lan-dokumentuak (aktak). Guztira 4.
- Parte hartu duten udalerriei zuzenduriko galdetegiak.
- Dokumentu honetan jasotzen den prozesuaren azken txostena (barne dokumentua).



Lanerako dokumentuak: Prozesu osoan zehar udalerriekin landutako edukietatik lanerako ondorengo dokumentuak egin dira:

- *Indarkeria sexista osasun larrialdian – Tokiko Administrazioentzako gida.* Dokumentu honek, hiru esku hartze eremutan banatuta, udalen lanketarako jarraibide batzuk jasotzen ditu:
 1. Arreta (batez ere telefonoz edo berehalako mezularitzaren bidez).
 2. Detekzioa (udal mailan sortutako programa soziokomunitarioen bidez).
 3. Sentsibilizazioa (emakumeei zuzendutako mezuen bidez, baina baita herritar guztiei zuzendutako mezuen bidez ere).
- *Indarkeria sexista konfinamendu garaian, toki administrazioan egindako ekimenaren laburpena.* Komunikaziorako dokumentu honetan prozesuaren deskribapena jasotzen da ondorengo atalak bereiztuz: prozesuaren azalpena; parte hartu duten udalerriak; landutako erreferentziazko marko amankomuna; udalerriek izan dituzten zailtasunak eta martxan jarritako esperientziak; politika eta zerbitzuen egokitzapenerako irizpideak; berreraikitze faserako proposamenak.



2.2. Parte hartze maila lan saioetan

Atal honetan lan saioetan eman den parte hartzeari dagokionez ondorengo informazioa jasotzen da:

- Udalerrien zerrenda eta biztanle kopurua.
- Parte hartu duten udalerrri, politikari eta udal langileen kopurua.
- Gipuzkoako biztanleria osoa eta deialdia luzatu zaien udalerrien biztanle kopurua kontutan hartuta, lan saioetan parte hartu duten udalerriek ordezkatzan duten biztanlegoa %koetan.

2.2.1. Hamar mila biztanle baino gehiago edota berdintasun arlo egonkorra duten udalerrriak. Maila politikoa

Lan saioa: 2020. urteko apirilaren 23a

Udalerrria	Biztanle kopurua
Andoain	14.613
Astigarraga	5.901
Azkoitia	11.394
Azpeitia	14.666
Beasain	13.869
Donostia	186.062
Eibar	27.498
Elgoibar	11.594
Errenteria	39.512
Hernani	20.220
Hondarribi	16.464
Irun	60.938
Lasarte	18.494
Lezo	6.043
Legorreta	1.496
Oiartzun	10.200
Oñati	11.275
Ordizia	9.488
Pasaia	15.977
Tolosa	19.390
Urola	25.917
Ezkio, Legazpi, Urretxu, Zumarraga	6.013
Usurbil	1.566
Zaldibia	22.552
Zarautz	9.840
Zumaia	9.840


Guztira 29 udalerrrik parte hartu dute

Udalerrriak: 29 (25 udalerrri eta Mankomunitate 1)

Udal ordezkariak: 30 (6 alkate, 3 alkateorde, 21 zinegotzi)


Udal langileak: 19 berdintasun teknikari

Udalerrriak




Biztanlegoaren ordezkartza

Gipuzkoako biztanlego osoaren %82,1a ordezkaturia izan da



Deialdia luzatu zaien herrien biztanlegoaren, %93,3a ordezkaturia izan da





2.2.2. Hamar mila biztanle baino gutxiagoko udalerrriak. Maila politiko-teknikoa

Lan saioa: 2020. urteko apirilaren 17a

Udalerrria	Biztanle kopurua
Aduna	465
Aizarnazabal	775
Alkiza	352
Anoeta	1.996
Asteasu	1.493
Ataun	1696
Berastegi	1.064
Bideberri	
Antzuola, Elgeta, Gatzaga	3.500
Eskoriatza	4.055
Gabiria	506
Getaria	2.675
Ibarra	4.345
Irura	1.577
Larraul	249
Lazkao	5.348
Legorreta	1.496
Lizartza	661
Mutriku	5.021
Orio	5.147
Saiaz	
Albiztur, Beizama, Bidania-Goiatz, Errezil	1.578
Segura	1.455
Urnietza	6.145
Villabona	5.768
Zaldibia	1.566
Zestoa	3.544
Zizurkil	2.766


Guztira 31 udalerrrik parte hartu dute

Udalerrriak: 31 (24 udalerrri eta Mankomunitate 2)

Udak ordezkariak: 19 (9 alkate eta 10 zinegotzi)

Udal langileak: 16 (gizarte langile, kultur teknikari, berdintasun teknikari)

Udalerrriak



Partehartzea

Deialdiaren %32,5

Biztanlegoaren ordezkariak

Gipuzkoako biztanlego osoaren %9,1a ordezkatu izan da



Deialdia luzatu zaien herrien biztanlegoaren %72,4a ordezkatu izan da



2.2.3. Hamar mila biztanle baino gehiago eta berdintasun-arlo egonkorra duten udalerrriak. Maila teknikoa

1. Lan saioa: 2020. urteko apirilaren 15a


Udalerrria	Biztanle kopurua
Arrasate	22.052
Astigarraga	5.901
Beasain	13.869
Donostia	186.062
Eibar	27.498
Elgoibar	11.594
Errenteria	39.512
Hernani	20.220
Irun	60.938
Oñati	11.275
Ordizia	9.488
Tolosa	19.390
Urola	
Ezkio, Legazpi, Urretxu, Zumarraga	25.917
Usurbil	6.013
Zumaia	9.840
Zaldibi-Segura-Legorreta	4.517

Guztira 21 udalerrrik parte hartu dute

Udalerrriak: 21 (17 udalerrri eta Mankomunitate 1)

Teknikariak: 21 berdintasun teknikari

Udalerrriak



Partehartzea


Deialdiaren %72,4

Biztanlegoaren ordezkariak

Gipuzkoa osoko biztanlegoaren %66,4a ordezkatu izan da



Deialdia luzatu zaien herrien biztanlegoaren %81,1a ordezkatu izan da






2. Lan saioa: 2020. urteko apirilaren 28a

Udalerrria	Biztanle kopurua
Andoain	14.613
Arrasate	22.052
Astigarraga	5.901
Azpeitia	14.666
Beasain	13.869
Donostia	186.062
Eibar	27.498
Hernani	20.220
Irun	60.938
Oñati	11.275
Ordizia	9.488
Pasaia	15.977
Tolosa	19.390
Urola	
Ezkio, Legazpi, Urretxu, Zumarraga	25.917
Usurbil	6.013
Zumaia	9.840
Zaldibi-Segura-Legorreta	4.517

Guztira 21 udalerrrik parte hartu dute

Udalerrriak: 21 (17 udalerrri eta Mankomunitate 1)
Teknikariak: 25 berdintasun teknikari

Udalerrriak




Biztanlegoaren ordezkartza

Gipuzkoa osoko biztanlegoaren %65,5a ordezkatu izan da



Deialdia luzatu zaien herrien biztanlegoaren %80,1a ordezkatu izan da





2.2.4. Parte hartzea guztira – lan saio guztiak kontutan harturik

Udalherria	Biztanle kopurua
Andoain	14.613
Aduna	465
Aizarnazabal	775
Albiztur	309
Alkiza	352
Anoeta	1.996
Antzuola	2.159
Arrasate ² Mondragon	22.052
Asteasu	1.493
Astigarraga	5.901
Ataun	1696
Azkoitia	11.394
Azpeitia	14.666
Beasain	13.869
Beizama	125
Berastegi	1.064
Bidania-Goiatz	531
Deba	5.384
Donostia	186.062
Eibar	27.498
Elgeta	1.079
Elgoibar	11.594
Erreenteria	39.512
Errezil	616
Eskoriatza	4055
Ezkio	626
Gabiria	506
Getaria	2.675
Hernani	20.220
Hondarribia	16.464

Udalherria	Biztanle kopurua
Ibarra	4345
Irun	60.938
Irura	1.577
Larraul	249
Lasarte	18.494
Lazkao	5.348
Legazpi	8.718
Legorreta	1.496
Leintz ² -Gatzaga	262
Lezo	6.043
Lizartza	661
Mutriku	5.021
Oiartzun	10.200
Oñati	11.275
Ordizia	9.488
Orio	5147
Pasaia	15.977
Segura	1.455
Soraluze	3.944
Tolosa	19.390
Urnieta	6.145
Urretxu	6.753
Urbil	6.013
Villabona	5.768
Zaldibia	1.566
Zarautz	22.552
Zestoa	3.544
Zizurkil	2.766
Zumaia	9.840
Zumarraga	9.820

Guztira 60 udalerrik parte hartu dute

Udalerrriak: 60 (49 udalerrri eta 3 mankomunitate)

Udal langileak: 42 (berdintasun teknikari, kultur teknikari, gizarte langile)

Politikariak: 48 (15 alkate, 3 alkateorde, 30 zinegotzi)

Parte hartu duten Udalerrriak
Gipuzkoako udalerrrien %67,4a

Biztanlegoaren ordezkariatza

Gipuzkoa osoko biztanlegoaren %94,4a izan da ordezkatu

94,4%



3. Erreferentziako markoa

Atal honetan egindako saio ezberdinetan landutako erreferentziako markoa jasotzen da. Bertan, landutako edukiak biltzen dira eta konfinamendu garaian eta ondorengo “berreraikitze” fasean indarkeria matxistaren kontrako politikak garatzeko zenbait klabe eskaintzen dira.

3.1. Analisi esparrua: elementu ezagunak eta ezezagunak

Azken urteotan landu den indarkeria matxista aztertzeo esparruak **ezagutzen ditugun elementuak** ditu, eta garrantzitsua da horiei berriz ere heldzea:

- Indarkeria matxistaren jatorria eta ondorioak.
- Indarkeriaren dinamikak.
- Emakume biktimen zailtasuna bizi duten indarkeria identifikatu eta salatzeo.
- Indarkeriaren normalizazioa.
- Kontrol jarreraren inpunitatea.

Konfinamendu egoeraren ondorioz, elementu **ezezagun berri** batzuk txertatzen dira analisisian, besteak beste, honako hauek:

- Krisi egoeretako portaeren inguruan egindako analisiak erreskatatzea, urgentzia, larrialdi eta berreraikitze faseak identifikatuz. Ez daukagu horrelako kasurik, baina bai ikasteko moduko egoerak eta esperientziak, esaterako, **hondamendi naturalak**.
- Jokabideak aztertu **konfinamenduaren testuinguru berri batean**.
- Indarkeriaren biktimei **arreta emateko zerbitzuak egokituta ez dauden** testuingurua jorratu.
- Osasun alarma dela eta sortutako egoeratik noiz eta nola irtengo garen ez jakiteak sortzen duen **ziurgabetasunarekin** lan egin.

Era berean, indarkeria egoerei erantzun bat ematerako orduan osasun larrialdia baino lehen zeuden **zailtasunak** kontutan hartu behar dira. Hala nola:

- Profesionalek indarkeria egoerak hautemateko dituzten zailtasunak.
- Salaketaren automatismoa eta ibilbide judizialeko konplikazioak, emakumeei mesede egiten ez dietenak.
- Udalerrri barruko eta erakunde arteko koordinazioa, ez dena beti nahi bezain eraginkorra.
- Sarrera ate mugatuak.



Konfinamenduaren testuinguruan zailtasunak larriagotu egiten dira eta **zailtasun berriak** sortzen dira:

- Profesionalek zailtasun handiagoak dituzte detekzioan.
- Sarrera ateak gehiago murrizten dira.
- Sarrera ateak irekitzen dira beraien funtzionamenduan eta jarduteko moduan esperientziarik izan gabe.
- Bide telematikoak komunikazio bide bakar gisa geratzen dira. Beraz, wifi sarbidea eta telefonia mugikorra erabiltzea arazo bihurtzen da, batez ere emakume jakin batzuentzat.

3.2. Osasun alarma dela eta sortutako egoeraren inguruko kontakizunak

Egungo egoeraren inguruko kontakizunaren elementu nagusietako bat da «**etxean geratu**» mezua. Konfinamendua osasun babeserako neurri bat da, baina gizarte estrategia bat ere bihurtu da, esparru ideologiko, erreferentzial eta pentsamendu esparru jakin bat dituen eta gizartearen zati handi bat baztertzen duena: etxean geratzeko gutxieneko baldintzak ez dituzten pertsonak, eta, zehazki, beren etxea leku seguru bat ez den emakumeak.

Kontakizun honen oinarrian dagoen ideia nagusietako bat da etxea leku segurua dela (beti), eta, beraz, zalantzan jartzen duela mugimendu feministak eta berdintasun politikek indarkeria matxistaren aurkako borrokaren esparruan aldarrikatu dutena: **etxeak, askotan, emakumeentzako arriskuguneak direla**. Ondorioz, desagertu egin dira eraso sexista gehienak etxeetan eta familia ingurunean gertatzen direla adierazten duten egiaztapenak. Baita indarkeriak etxeko eremutik atera ez dadin, batzuetan, familiaren konplizitatea duela salatzen dutenak ere.

Gainera, konfinamenduaren testuinguruan, alde batetik, «geratu etxean» mezua erromantizatu egiten da, eta, bestetik, kontrol elementu bihurtzen da (konfinamendua betetzen ez dutenek ondorioak jasango dituzte). Beraz, agindu sozial bihurtzen den mezu horrek **zaildu egiten du indarkeria matxistaren dinamikekin zer gertatzen ari den ikustea**.

3.3. Indarkeria sexista ikusarazten konfinamendu garaian

3.3.1. Salaketak konfinamenduaren testuinguruan

Konfinamendua luzatu eta desberdinkeria azaleratu ahala, indarkeria sexistaren gaia agendara itzuli da, zehazki, erasotzailearekin etxean konfinatuta geratu diren emakumeen egoera.

Indarkeria sexistari buruzko lehen kontakizunek salaketan jartzen dute arreta, eta eskuragarri dauden datuek, konfinamenduan zehar, salaketa kopurua murriztu egin dela



adierazten dute. Adibidez, Emakundek apirilaren 16an aurkeztutako datuen arabera, salaketak erdira jaitsi ziren, urteko beste une batzuekin alderatuta. SATEVI (emakumeen aurkako indarkeriaren biktimenzako telefono bidezko arreta zerbitzua) zerbitzuaren telefono zenbakira egindako deien kopurua antzeko mantendu zen, eta horien artean, zaintzari eta bisita erregimenari edo berehalako premiei buruzko kontsultek gora egin zuten.

Salaketen inguruko datuak honako kasu hauetan oinarrituta interpretatu ziren hasiera batean:

- Konfinamendu egoerak zaildu egiten du salaketa bat jartzea.
- Auzokideek gehiago kontrolatzen dute, eta ondorioz, erasotzaileek erasotzea galarazten dute.
- Salaketa askotan erasotzailea bikotekide ohia da, eta konfinamendu testuinguruan biktima ez da harekin bizi.

Argitaratutako datuak interpretatzeko orduan garrantzitsua da kontuan hartzea **salaketen kopurua murrizteak ez duela esan nahi indarkeria gutxitu denik**, eta beharrezkoa da indarkeria salaketetan ardaztuta ulertzeak dakartzan arriskua saihestea:

- Salaketa indarkeria egoerei aurre egiteko bide edo estrategia bakarra dela ulertzea.
- Indarkeria kasuak salaketa kopuruaren arabera ondorioztatzeke joerara itzultzea.

Arrisku horiek saihesteko, indarkeria ezkutua ulertzea funtsezkoa da, eta analisi fokuak salaketara ez mugatzea ere.

3.3.2. 12/2020 Errege Lege-Dekretua, martxoaren 31koa, larrialdiko neurriak ezartzen dituena genero indarkeriaren biktimak babestu eta laguntzeko

Konfinamendua agindu eta 15 egunera argitaratu zen 12/2020 Errege Lege-Dekretua, genero indarkeriaren biktimak babesteko eta laguntzeko abian jarriko diren neurriak jaso zituen. Neurri horiek, batez ere, erakundeei zuzendutako gomendioetan jartzen dute ardura: laguntza eta babes zerbitzuak mantendu eta inguruabarretara egokitu ditzaten, zerbitzu horiek funtsezkotzat joz eta haien jarraipena eta funtzionamendua bermatuz.

Lege-Dekretuak honako eremu hauetan egin beharreko egokitzapenak aipatzen ditu:

- **Informazio** eta aholkularitza juridikoko **zerbitzuen funtzionamendua**, egunean 24 orduz, telefonoz eta **linean**, bai eta genero indarkeriaren biktimenzako **telelaguntzako** eta gizarte laguntza integraleko zerbitzuena ere (2. artikulua).
- Genero indarkeriaren eta emakumeen aurkako beste indarkeria mota batzuen biktimei **harrera emateko zerbitzuak** (3. artikulua).
- Bitarteko telematikoen bidezko jarraipen sistema, genero indarkeriaren arloko **kautela neurriak eta hurbiltzeko debeku zigorrak** betetzeari buruzkoa (4. artikulua).
- Genero indarkeriaren biktimei gizarte laguntza integraleko zerbitzuak ematen dizkieten langileen segurtasunari buruzko neurriak, bai eta beren izaeragatik, emakumeei aurrez aurre eman behar diren beste laguntza mota batzuenak ere (6. artikulua).



Dekretuak, halaber, II. Kapituluaren, egungo testuinguruak behar dituen neurri eta egokitzapenetara bideratutako funtsak jorratzen ditu, eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren funtsak erabil daitezkeela xedatzen du.

3.3.3. Mezuen bilakaera

Indarkeria ikusarazteak etxea indarkeriaren biktima diren emakumeentzat leku arriskutsua dela onartzea dakar. Aitorpen horretatik sortzen diren mezuek eskura dauden baliabideak indartzeko eta egokitzeko beharra eta konfinamendu garaian emakume biktimei zuzenduriko laguntza mantentzen dela azpimarratzen dute.

Martxoaren 8ko mobilizazioek indarra izan zuten herrialde batzuetan, ñabardura interesgarri batzuk ikus daitezke erakundeen erantzunetan. Adibidez, Latinoamerikan:

- **Txile:** Zerbitzuak eta mezuak egokitu dira, eta sare sozialetan banatzen diren bideo laburrak sortu dira (adibidez, Instagramen bidez). Bideo horiek egokituta daude, soinurik gabe ikusi ahal izateko eta emakumeek segurtasunez ikusi ahal izateko.
- **Argentina:** Ñabardura garrantzitsu bat txertatu da «geratu etxean» mezuan: edozein arrazoi dela eta, pertsona batzuentzat etxean geratzea segurua ez izatearen aukera ere kontuan hartzen da.
- **Mexiko:** Kontakizunak mezu hau zabaldu du: «geratu etxean, baina seguru». Ikuspegi horretatik, etxean seguru geratzeko eta indarkeriarik gabe konfinatzeko estrategia batzuk eskaintzen dira. Arreta zerbitzuekin harremanetan jartzeko baliabideak ere eskaintzen dira, eta harrera baliabideren bat behar duten emakumeei zuzendutako neurriak ezartzen dira.

Kasu horietan, «etxean geratu» mezua mantentzen da, etxean geratzea beharrezkoa dela onartuz, baina **etxean geratzea segurua ez den egoerak** kontuan hartzen dituen **ñabardura garrantzitsu bat** gehituz. Ñabardura hori txertatzeak bi elementu bereiztea dakar: alde batetik, osasun estrategia eta bestetik, emakumeentzat etxean geratzeak dakartzan elementu soziala.



3.4. Indarkeria sexista konfinamendu garaian

3.4.1. Aurretiazko baldintzak

Aldaketa testuinguru batean, aurretik zeuden baldintzak eta emandako aurrerapenak kontutan hartzea garrantzitsua da:

- Erakunde arteko koordinazio protokoloak martxan jarraitzen dute.
- Autonomia, eta foru mailan, salaketa ez zen eta ez da baldintza bat emakumeek laguntza baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriari soilik erreparatzen ez dion begirada zabal batetik abiatuta lan egin du.

3.4.2. Konfinamendu garaian arretara iristeko bide berriak

Konfinamenduan, erkidegoan, indarkeria sexistaren biktimentzako arreta sistema aktibo mantendu da. Erronka izan da, ordea, emakumeen egoera zein zen jakitea eta arreta zerbitzu horientzako sarbide berriak sortzea (kontuan izanda aurrez aurreko arretarako oztopo handia izan dela konfinamendua eta ekarri duen erasotzaileen kontrolaren igoera). Horregatik, bide horien artean, laguntza eskatzeko telefono mugikorraren bitarteko txat eta bideo deiak igoera izan dute¹. Beraz, bide horiek informazio tresna oso baliagarriak izan dira, gainera emakumeei egoerari eusten laguntzeko tresnak izan dira.

3.4.3. Egiturazko desberdintasuna konfinamenduan

Osasun larrialdiak sortutako testuinguruan **emakumeen ondoezak** larriagotzen dira, ez bakarrik indarkeria egoerengatik, baita beren bizitzak garatzeko zituzten laguntza asko desagertu edo mugatu direlako ere. Adibidez, zaintzekin lotutakoak: ikastetxeak, eguneko zentroak, jolaserako eta aisialdirako guneak, familia-sareak, etab.

Konfinamenduan zaintza-lanaren pisu osoa etxeetan kokatzen da, eta, horien barruan emakumeek beren gain hartzen dituzte neurri handi batean. Beraz, konfinamendu garaian emakumeek, indarkeria sexista egoerez gain, egiturazko genero desorekaren larriagotze bati aurre egin behar diote. Hain zuzen ere, testuinguru horretan zaintza lanaren ardurak eragiten duenari.

Emakumeak zaintzaren pisuaz, indarkeriaren pisuaz eta gehitzen joan daitekeen guztiaz arduratzen ari dira. Kolektiboaren eta egoeraren arabera pisu horrek ezaugarri eta ondorio desberdinak izango ditu. Ez da batuketa aritmetiko bat, esponentziala baizik.

¹ Horren adibidea da, Berdintasun Ministerioak martxoaren 14-29 aldiari buruz aurkeztutako datuetan telefono bidezko kontsultak % 12,43 areagotu zirela, eta on line kontsultak, berriz % 269,57 areagotu zirela – batez ere WhatsAppen bidez egindakoak –.



3.4.4. Aldaketei buruzko hipotesiak

Gaur egun ez dago informazio zehatzik indarkeria matxistaren moduak konfinamendu testuinguruan nola aldatu diren jakiteko, baina honako **hipotesi** hauek atera daitezke:

- Konfinamenduan **erasotzaileen kontrol sentsazioa areagotzen da**. Tratu txarren adierazpenak aldatuz doaz, horiek sortzen diren testuinguruaren ezaugarrien arabera. Egungo testuinguruan gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea zein den indarkeriaren esanahi funtzionala, **kontrola egiteko modu bat baita**.

Konfinamenduaren testuinguruan, erasotzaileek kontrol handiagoa izan dezakete haiekin bizi diren emakumeengan. Halaber, kontuan izan behar da erasotzailearentzat etxean inpunitate sentsazioa areagotzen dela, are gehiago arreta beste larrialdi batzuetan jartzen ari den unean.

- Erasotzailearen aurkako salaketa jartzeko orduan, badaude bestelako elementu batzuk, emakumeek pauso hori eman ez dezaten. Adibidez, erasotzaileek etxetik irten behar dutenean ematen diren bizitoki aukerak, oro har, etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxeak baitira aukera bakarrak. Horren ondorioz, emakume askok ez salatzea erabaki dezakete.
- Konfinamenduaren ondorioz **emakumeek gehiago eusten diote egoerari**, modu ez osasuntsuan, bizikidetzakudeatu ahal izateko. Gehiago eusten diote bai beren buruei, bai haiekin bizi diren pertsonari.

Jakina da emakumeek erasotzailearen indarkeriari eusten diotela. Garrantzitsua da ulertzea **eustea eta ezer ez egitea ez dela gauza bera**. Kasu askotan, eusten laguntzen dute arreta zerbitzuek. Baina, konfinamenduaren testuinguruan, zailagoa da orain arte, neurri handi batean, aurrez aurreko arretaren bidez egiten zen laguntza hori gauzatu ahal izatea.



3.5. Esku hartzeko proposamenak

3.5.1. Esku hartzea fase desberdinetan

Esku hartzeko proposamen bat egiterako orduan, garrantzitsua da kontuan hartzea egungo testuinguruak ekar ditzakeen aldaketen dimentsioa zein izan daitekeen. Latinoamerikan aztertutako krisi egoerek erakutsi dute sortzen diren aldaketak partzialak eta kontraesankorrak direla. **Dena ez da aldatzen, eta denak ere ez du berdin jarraitzen.** Era berean, ulertu behar da etxeetan gertatzen ari dena eltze-espres baten metaforaren bidez adieraz daitekeela. Beraz, berreraikitzean nola esku hartuko den ere planifikatu behar da, «lapikoaren estalkia irekitzen denean».

Abiapuntu horretatik, esku hartze bat planifikatzeko orduan hiru fase horiek bereiztea proposatzen da:

- **Larrialdi fasea** — bizitza arriskuan dago.
- **Urgentzia fasea** – arriskua dago, baina bizitza ez dago arriskuan.
- **Berreraikitze fasea** — arriskua pasa da. **3.5.2. Konfinamendu garaian esku hartzeko eremuak**

Honako esku-hartze eremu hauek proposatzen dira:

1. Emakumeak egiten ari diren euste-lana aitortzen duten kontakizun alternatiboak kaleratzea.
2. Euste sare komunitarioak indartzea.
3. Laguntza digitalizatzea berehalako mezularitzaren bidez eta emakumeei bitarteko digitaletarako sarbidea ziurtatzea.

Kontakizun alternatiboak esku hartzearen esparruan konfinamendu garaian

Esku hartzean egungo egoera kontuan hartzen duten **mezu alternatiboak** txertatzea proposatzen da:

- **Ezohiko**, ustekabeko eta zalantzazko **egoera** bizi dugu.
- Egoera horretarako banakako **erantzunak moldagarriak** dira.
- Erantzunak moldagarriak izateak esan nahi du iragankorrak eta baliagarriak direla egoera horretarako, eta, beraz, ez direla nahitaez aplikagarriak beste egoera batean.
- Emakumeak egiten ari diren egokitzapen estrategiak baliagarriak dira egungo testuingururako, baina ez testuinguru hori aldatzen denerako. Horregatik, garrantzitsua da indarkeriaren inguruko interpretazio alternatiboak eraikitzea eta transmititzea, ideia hori txertatzeko. Era berean, garrantzitsua da ulertzea emakumeak ahalegin handia egiten ari direla indarkeria etxean gera dadin, egungo testuinguruan kokatu behar diren mendetasun eta euste estrategiak garatuz. Estrategia egokitzaileak dira, eta ondorioak agerian geratuko dira, batez ere berreraikitze fasean.



Mezu alternatiboen **adibide batzuk:**

- Etxean geratu behar dugu, osasun estrategia bat delako, baina ez da leku segurua emakume askorentzat. Egungoa bezalako egoera batean bizirik irauteko estrategiak garatzeak ahalegin handia eskatzen du. **Idea hori** egiaztatu eta **normalizatzea** garrantzitsua da emakumeak errudun senti ez daitezen, hain zuzen ere ez dietelako gizarte itxaropenei erantzuten familia harremanetan bete beharreko eginkizunen inguruan. Garrantzitsua da, halaber, egiten ari direna nekagarria dela ulertzea, eta, beraz, normala dela nekatuta sentitzea.

Mezuen bidez irakurketa hauek saihestea garrantzitsua da:

- Indarkeriari soilik salaketaren ikuspegitik heldzea.
- Begirada bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero indarkeriara mugatzea.
- Konfinamenduan indarkeriaren aurka ezer egiterik ez dagoela edo ezer gutxi egin daitekeela sinestea.

Sare komunitarioak

Estrategia komunitarioak laguntza neurri garrantzitsuak dira indarkeriaren biktima diren emakumeentzat. Konfinamenduaren testuinguruan askoz errazagoa da lehendik zeuden sareak aktibatzea, sare berriak sortzea baino. Horri dagokionez, aipagarria da Emakumeen Etxeen eta Jabekuntza Eskolen baitan, garatutako ahalduntze prozesuen bidez, alde zuzenetik, sortutako sareek konfinamendu garaian jokatu duten papera.

Auzotarrek jokatu dezaketen eusteari dagokionez, ukalezina da kontrol sozialak gora egin duela, baina ez dago argi kontrol horrek indarkeria kasuetan nolabaiteko euste-papera izan dezakeenik. Horregatik, garrantzitsua da identifikatzea zeintzuk diren aktibatu diren laguntza sare komunitarioak eta zeintzuk aktibatu behar direnak. Adibidez, emakumeak sostengatuko dituzten sare komunitarioak erasotzaileei zuzendutako kontrol soziala areagotzen dutenetatik bereiztea funtsezkoa da. Baliteke kontrol sozialak jokabide oldarkorrek kontrolatzeko funtzioa betetzea, eta, ildo horretan, baliteke muturreko erasoak ekiditea. Baina horrek ez du esan nahi kontrolak berez biktima diren emakumeei zuzenduriko euste laguntza eskaintzen duenik.

Emakumeentzako eta neskentzako komunitate seguruak indarkeria egiturazko arazotzat hartzen dutenak dira, eta ez arazo pertsonaltzat. Aitorpen horretatik, indarkeriaren biktimei zuzendutako laguntza-sare komunitarioak aktibatu behar dira, baina sare horiek ez dute zertan auzokoetara mugatu behar. Garrantzitsua da berehalako eta presazko laguntzarako bide guztiak ahalbidetzea. Ildo horretatik, komunikazio bide-birtualak aktibatzen ari dira emakume askoren premiei erantzuteko.



Esku hartzean laguntzea: bitarteko digitalak

Beharrezkoa da indarkeria jasaten duten emakumeei eskaintzen zaien **laguntza digitalizatzea**, batez ere sostengu psikosozialaren inguruan; funtsezkoa da laguntza soilik telefono bidezkoa ez izatea, eta, beraz, **bide digital berriak** irekitzea, emakumeak seguruago senti daitezen.

Une honetan, sostengu psikosoziala da emakumeek gehien behar dutena; beraz, mezuak berrikusi behar dira, eta ulertu behar da egungo testuinguruak bizi-premiak aldatzen dituela kasu askotan.

Laguntza hori emateko, hori modu seguruan gauzatzen dela bermatu behar da, eta emakumeek beharrezko baliabideak badituztela. Adibidez, **wifi edo datuak** erabiltzeko aukera.

3.5.3. Berreraikitze garairako proposamenak

Ondoezak deskonfinamendu-garaian

Deskonfinamenduan kontrol jardueren ondorioak adierazten dituzten ondoezak fokutik kanpo ez uztea garrantzitsua da, ikusezin bihurtzeko arriskua baitago. Emakumeen artean, askotan, ondoezak maila psikosomatikoan agertzen dira. Horregatik, ez dira hain agerikoak eta esplizituak izaten. Gizarteak ezarritako genero rol eta estereotipoak ez betetzearen sentazioarekin lotuta egoten dira. Baina, oro har, ez dira interpretatzen testuingurunearen irakurketa bat integratuz (familia, harremanak, komunitatea eta gizarteak); aitzitik, irakurketa individual batean oinarrituta interpretatzen dira, "emakumeen arazoak", "izaerazko arazoak" edo "buru-nahasmenduak" bezala definituz.

Horregatik guztiagatik, deskonfinamenduan garrantzitsua izango da ondoez horiek aitortzea, genero-harreman desorekatuen emaitza direla azpimarratuz.

Emakumeen ondoezak jorratzerakoan kontutan hartzeko elementuak:

Berreraikitze fasean emakumeen ondoezak jorratzeko honako faktore hauek hartu behar dira kontuan:

- Larrialdi fasean egindako jarduerak eragina izango dute berreraikitze-fasean. Beraz, emakumeengan zer eragin izan duten aztertu beharko da. Horri dagokionez, azpimarratu behar da konfinamenduan **salaketek behera** egin dutela eta **laguntza eskaerek gora** egin dutela.
- Konfinamendu egoerak emakumeengan duen eragina hainbat modutan eta denboran zehar adieraziko da. Zentzu horretan, ondorioak berandu ager daitezkeela jakin behar da.
- Kriaren ondoren normaltasunera itzultzeko deia indartuko da, ideia hau nagusituko delarik: "Itzul gaitzen lehenbailehen normaltasunera". Egoera horrek emakumeek



beraien ondoezak ez adieraztea eragin dezake eta inork ez dituela aintzat hartzen sentitu dezakete, beraien frustrazioa areagotuz.

- Konfinamendu fasean estres faktoreak areagotu egin dira. Adibidez:
 - o Haurrek etengabeko arreta eskatzen dute.
 - o Luzaroko bizikidetzak, atsedenerako tarterik eta denborarik gabe.
 - o Sustantzia ezberdinen kontsumoa: alkohola eta legezko eta legez kanpoko drogak.
 - o Egoera ekonomikoak eta sozializazio ezak sortzen dituen tentsioak.
 - o Banantze-egoeretan: tentsio handiagoa zaintza-araubide neurrietan, eta pentsioaren ordainketan eragina duten arazo ekonomikoak.
- Emakumeek konfinamendu testuinguruan emandako erantzunak ondorengo gaitasunaren/aukeraren arabekoak izan dira:
 - o Indarkeria aitortzeko gaitasuna.
 - o Erasotzaileak ezartzen/eskatzen duena egiteko gaitasuna.
 - o Laguntza eskatzeko gaitasuna.
 - o Eusteko eta babesteko gaitasuna.

Hipotesiak

- Krisi-egoeren azterketak erakusten duen bezala, aldaketa partzial eta kontraesankorrak dakartzate, bai maila indibidualean, bai sozialean ere. Hori dela eta, berreraikitze fasean aurrerapausoak eman daitezke, baina baita atzerapausoak ere.
- Konfinamenduan indarkeria sexista ez da desagertu, eraldatu baizik. Hipotesi gisa zehaztugabeko eta aitortu gabeko ondoezak areagotu egin direla planteatzen da.
- Konfinamendu garaian "aho txikiarekin" aitortu da zainketek bizitzari eusteko duten garrantzia, baina ez da behar bezala aitortu emakumeek zaintza horien aurrean egindako papera. Adibidez, ez da inolako neurririk ezarri egoera irregularrean dauden emakume zaintzaileak legeztatze, ezta haien eskubideak aitortzeko bestelako neurri praktikorik ere.
- Bizirik atera diren emakume biktimek gehiago eutsi behar izan diote erasotzaileei, seme-alabei eta beren buruei. Eusteko lan horren ondorioak hainbat modutan eta denboran zehar azalduko dira.
- Elkarrekin bizi ez diren bikoteetan kontrol ezaren berezko tentsioak sortu dira ziurrenik, teknologia berrien bidez burutzen diren kontrol eta indarkeria praktikak ugartuz. Adibidez, Internet eta whatsapp bidezko sextorsioa.



-

Zeregin eta eginbeharrak

Planteatutako hipotesiak kontuan hartuta, berreraikitze faseari begira honako zeregin hauek planteatzen dira:

- Sortu diren kalteak eta eman diren aldaketak sistematizatzea eta aztertzea. Azterketa hori garrantzitsua izango da erreparazioaren esparruan esku-hartze bat planifikatu ahal izateko.
- Ondoezak detektatzeko eta lantzeko esparruak erraztea. Horretarako, garrantzitsua da konfinamenduan zehar emakumeek landu dituzten estrategiei heltzea eta estrategia horiek testuinguru horretan izan duten eraginkortasuna aztertzea. Adibidez, mendetasun handiagoa konfinamendu testuingururako estrategia egokia izan daiteke, baina estrategia hori lantzea garrantzitsua da emakumeak desjabetu ez daitezen.
- Konfinamenduan zehar emakumeei erantzun egoki bat eskaini dieten laguntza baliabideak identifikatu, horiek prebentzioan, arretan eta erreparazioan barneratu ahal izateko.
- Salaketen bilakaeraren jarraipena egitea konfinamenduaren ondoren.
- Konfinamenduaren ostean on line laguntza nola mantendu daitekeen aztertzea. Adibidez, familia barruko indarkeriaren kasuan, Emakundek argitaratutako datuen arabera konfinamenduan kasu horien arreta areagotu egin baita.
- Seme-alabekiko harremanean estres handiagoa artatzea, baita indarkeria-adierazpenak eurengana desbideratu dituzten adingabe horien egoeretan ere. Espero izatekoa da, halaber, seme-alabak beren amak babesteko strategiak garatzen aritu izana. Beren amak seguruago daudela sentitzen dutenean, babes-estrategia horien ondorioak azaleratuko dira, eta, ondorioz, amen aurkako indarkeria adierazpenak eman daitezke, baita heltze-prozesuetan atzera egitea ere.
- Oso egoera konplexua da, baina denboran zehar eustea eta jarraipena egitea funtsezkoa da. Horregatik, indarkeria sexistari heltzen jarraitzeko, erakundeek integratu egin behar dituzte gertatu diren aldaketak, eta deskonfinamendu fasean sortzen diren ondoezei heldu behar diete.




4. Udalerrien egoera: zailtasunak eta praktika onak

4.1. Hasierako egoera – galdetegia

Prozesua martxan jarri bezain laster, apirilaren 8an, udalerrri guztiei mezu bat bidali zitzaien prozesuaren berri emateko. Aldi berean zituzten beharrak identifikatzeko eta martxan jarritako egokitzapen neurrien inguruko informazioa jasotzeko mezu berean galdetegi bat bidali zitzaien. Ondoren, galdetegi horren emaitza nagusiak aurkezten dira:


Galdetegia erantzun duten udalerrriak



Grafikan ikus daitekeen bezala, galdetegia **37 udalerrrik** erantzun zuten, Gipuzkoako udalerrrien %41,5ak. Tamainari dagokionez, 10.000 baino gutxiago duten udalerrrien % 42,4ak erantzun zuten galdetegia eta 10.000 baino gehiago duten udalerrrien % 40ak.

Indarkeria bizi duten emakumeei zuzenduriko **zerbitzuen egokitzapenei dagokionez**, galdetegia erantzun duten udalerrrien % 68ak egokitzapenak egin dituztela erantzun zuten. Gai honi dagokionez, udalerrrien tamainaren arabera desberdintasun nabariak eman dira, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrrien artean daudelako egokitzapenik egin ez dituztela adierazi zutenen gehiengoa.

Zerbitzuen egokitzapenak egin dituzten udalerrriak




Grafikan ikus daitekeen bezala, 12 udalerrrik zerbitzuen egokitzapenik egin ez zituztela adierazi zuten. Hauetatik 11 udalerrrik 10.000 baino gutxiago zuten. Beraz, 10.000 baino gutxiagoko udalerrrien % 44ak egokitzapenik egin ez duela adierazi zuten.




Egindako egokitzapen nagusia – bai udalerri txiki zein handietan – zerbitzuak telefonoz eskaintzea izan da.

Egokitzapenak: 10.000< udalerriak



Egokitzapenak: 10.000> udalerriak



Udalerriek galdetegian ondorengo beste egokitzapenak egin zituztela aipatu zuten:


- Indarkeria sexistaren esparruan dauden zerbitzuen inguruko difusioa bide desberdinak erabiliz. Nagusienak: udal web orriak, whatsapp taldeak, sare sozialak, kartelak e.a.
- Indarkeria bizi duten emakumeen arretan inplikaturik dauden beste eragileekin koordinazioa areagotu.
- Jabekuntza Eskola eta Emakumeen Etxeen baitan aurretik martxan zeuden autolaguntza taldeak bultzatu eta egokitu.
- Jabekuntza Eskola eta Emakumeen Etxeen programen bidez aurretik landutako jabekuntza talde eta sareak aktibatu.
- Interbentzio familiarreko programa egokitu indarkeria sexista egoeretan esku-hartzeko.
- Indarkeria bizi duten emakumeei zuzenduriko zerbitzu zehatz bat eskaini.

Udalerriek indarkeria bizi duten emakumeei zuzenduriko zerbitzuak eskaintzeko identifikatu dituzten **zailtasunen** artean hau izan da nagusia: *Konfinamendu egoera dela eta erasotzaileen kontrola areagotu egin da*, eta kontrol hori handitu delako eta ezin delako zerbitzua presentzialki jaso emakumeek **ez daukate udal zerbitzuekin komunikatzeko aukerarik**. Kasu horretan ez dago desberdintasun esanguratsurik herriaren tamainaren arabera.




Aipagarria da baita ere, **emakumeek wifi sarbiderik ez izatea** udalerriek identifikatu duten bigarren zailtasun nagusia izatea.

Zailtasunak: 10.000< udalerriak



Zailtasunak: 10.000> udalerriak




Udalerriek ondorengo beste zailtasunak identifikatu zituzten:

- Emakumeekin telefonoz segurtasunez komunikatzeko zailtasunak.
- Emakumeak konfinamendu garaian zerbitzuak eskuratzeko zailtasuna.
- Indarkeria matxista krisi egoeran lehentasunen artean ez kokatzea.
- Konfinamendu eta krisi garaian diru-laguntzak eskatzeko/ jasotzeko zailtasunak.
- Gizarte langileen lan zama.
- Zerbitzu soziokomunitario asko etenda daudelako kasu berrien identifikazioa eta zaharren jarraipena zaildu egiten da.

Ondorengo grafikan ikus daitekeen bezala 3 udalerri konfinamendu garaian identifikatu ziren kasuak beste zerbitzuetara **deribatzen zailtasunak** izan zituztela adierazi zuten.

Deribatzen zailtasunak




Dena den, aipatu beharra dago, kasu honetan udalerririk askok galdera erantzun gabe utzi zutela, batez ere 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerririk artean – horien %52k hain zuzen ere

Konfinamendu garaian indarkeria bizi duten emakumeen arretan inplikaturik dauden beste

eragileekin **koordinatzen arazoak** dagokionez, antzeko erantzunak jaso ziren. Kasu horretan 5 udalerririk erantzun zuten zailtasunak zituztela. Era berean, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerririk %32ak galdera erantzun gabe utzi zuten.




Deribatuzeko zailtasunak



10.000 biztanle baino gehiago duten udalerriek koordinazio zailtasunak ondorengo eragileekin identifikatu zituzten: Osakidetza 2 kasuetan, Ertzaintza kasu 1ean eta Udaltzaingoa beste kasu 1en. Zein beste zerbitzuekin koordinaziorako arazoak identifikatu ziren galdetzerakoan, 2 kasuetan arazoak Gizarte Zerbitzuekin eman zirela erantzun zuten.

Indarkeria bizi duten emakumeen egoerari **jarraipena** egiteko neurri zehatzik ezarri ote ziren erantzuterakoan udalerriaren tamainaren arabera desberdintasun nabariak eman dira baita ere: 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien % 20ak eta 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien % 75ak baietz erantzun zuten.

Jarraipena egiteko neurri zehatzak



Kasuen jarraipena egiteko ondorengo hauek dira udalerriek aipatu zituzten neurri nagusiak:

- Telefono deiak.
- Beste zerbitzuekin koordinazioa

Kasu batzuetan jarraipena lehendik martxan jarritako laguntza taldeak telematikoki egokituz edo Jabekuntza Eskola eta Emakumeen Etxeen

baitan aurretik sortutako sareen bidez burutu da. Beste kasu gutxi batzuetan ordutegia zabala duen arreta/jarraipen zerbitzu zehatz bat sortuz.

Azkenik, konfinamendu garaian eta ondoren, indarkeria bizi duten emakumeen arretari dagokionez, udalerriek identifikatzen zituzten **neurri zehatzen beharren** inguruan galdetu zitzairen. Honako hauek dira jasotako erantzunak:

- Sentsibilizazioa eta prebentzioa indartzeko beharra (Kanpaina bereziak egin).
- Zerbitzuak egokitzeko beharra, iristeko bideak erraztu eta hauek ezagutzera emateko bideak areagotu behar dira (whatsapp eta sare sozialen erabilera).
- Egoera honek arreta psikologikoaren beharra nabarmentzen du eta hau moldatzeko bideak bilatu behar dira.
- Aurretiaz identifikatutako indarkeria kasuen jarraipena egiteko moduak moldatzeko beharra.
- Emakumeei zuzenduriko babes sare eraginkorrak sortu.
- Indarkeria bizi duten emakumeen arretan inplikaturik dauden eragileen arteko komunikazioa eta koordinazioa sendotu.



Ondorioak

- Udalerriek egindako egokitzapen nagusia indarkeria bizi duten emakumeei zuzenduriko zerbitzuak telefonoz eskaintzea izan da. Dena den, konfinamendu egoeran erasotzaileen kontrola areagotu egin denez emakumeekin telefono deiak mantentzea zaila izan da.
- Bigarren egokitzapen nagusia whatsapp mezuak bidaltzeko telefono zenbaki bat bideratzea izan da. Kasu honetan, emakumeekin komunikazio bat mantentzeko erasotzailearen kontrola ekiditea errazagoa izan bada ere, wifi-rako eta telefonia mugikorrerako sarbidea arazo bat izan da hainbat kasuetan.
- Kasu gutxitan identifikatu dira deribatzen eta koordinatzen zailtasunak.
- Udallerri handien eta txikien artean jasotako desberdintasun nabaria da: ezagutzen ziren indarkeria kasuen jarraipena egiteko ezarritako neurriak. Galdetegia erantzun duten udalerrien artean, 10.000 biztanle baino gehiago duten udalerrien % 75ak neurri zehatzak ezarri zituztela erantzun zuten, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien artean, ordea, % 20ak.
- Aipagarria da aurretiaz ezagutzen ziren indarkeria kasuen jarraipena egiteko Jabekuntza Eskola eta Emakumeen Etxeen baitan aurretik sortutako emakumeen sareek izan duten papera.



4.2. Prozesuan zehar jasotako informazioa: praktika onak

Bai burututako lan saioetan eta baita prozesu osoan zehar hainbat udalerriekin mantendu den harremanaren bidez ere, konfinamendu garaian udalerriek martxan jarritako neurriak jaso eta sistematizatu dira. Ondoren jasotako informazioaren elementu nagusiak aurkezten dira:

Difusio neurriak

Indarkeria bizi duten emakumeei zuzenduriko zerbitzuak

Udalerri gehienak	Kasu zehatzak
<ul style="list-style-type: none">- Udalerri guztiek indarkeria sexistaren esparruan dauden zerbitzuen inguruko difusioa egin dute bide desberdinak erabiliz. Nagusienak: udal web orriak, whatsapp taldeak, sare sozialak, kartelak, hizkuntz desberdinetara itzulitako gidak e.a.	<ul style="list-style-type: none">- Kasu askotan difusioa egiteko herriko eragileengana jo da.- Lehendik sortutako emakume sare eta taldeak rol garrantzitsu bat bete dute. Mugimendu feministaren papera ere oso garrantzitsua izan da.- Kasu gutxi batzuetan difusioa egiteko tresna berriak sortu dira: adibidez bideo laburrak.- kasu batzuetan, konfinamendu garaian eman daitezkeen indarkeria egoeren inguruko informazioa zabaldu da.

Identifikazioa

Indarkeria sexistaren identifikazioa konfinamendu garaian

Udalerri gehienak	Kasu zehatzak
<ul style="list-style-type: none">- Konfinamendu aurretik indarkeria egoeren identifikaziorako zailtasunak, konfinamendu garaian areagotu egin dira.	<ul style="list-style-type: none">- Hainbat kasutan, indarkeria bizi duten emakumeen arretan inplikaturik dauden beste eragileekin mantendu den koordinazioaren bidez ezagutu dira kasu berriak. Adibidez, Ertzaintza eta Udaltzaingoa.- Kasu batzuetan indarkeria sexista egoerak zerbitzu soziokomunitarioen bidez identifikatu egin dira. Adibidez, pertsona nagusiei bideratutako zerbitzuen bidez.- Beste kasu batzuetan jabeak Eskolen eta Emakumeen Etxeen baitan sortutako emakumeen sareen bidez. <p><i>* Zerbitzu soziokomunitarioan indarkeriaren ikuspegia barneratua ez badago zaila da indarkeria egoerak identifikatzea.</i></p>



Arreta

Indarkeria bizi duten emakumeen arretaren kudeaketa

Udalerri gehienak	Kasu zehatzak
<ul style="list-style-type: none">- Arreta zerbitzuen egokitzapen nagusia zerbitzuak telefonoz eskaintzea izan da <p><i>* Arreta telefonoz egiterako orduan ondorengo zailtasunak identifikatu dira: Konfinamenduan erasotzaileen kontrola areagotu egin denez, emakume askok telefonoz hitz egiteko zailtasunak dituzte erasotzaileak telefonoa erantzuten duelako edo/eta emakumeak esaten duena kontrolatzen duelako.</i></p> <p><i>* Konfinamendu egoeran, arretak "kontentzio" eta euskarri lan psikosoziala egitea eskatzen du. Horregatik, udalerrri askok gizarte zerbitzuetatik edota arreta psikologikoko zerbitzuetatik bideratu dute lan hori.</i></p>	<ul style="list-style-type: none">- Udalerri batzuetan whatsapppe z komunikatzeko aukera eskaintzen duen telefono mugikor bat bideratu da. Kasu batzuetan telefono hori egoera orokorrak artatzeko erabili da. Besta kasu batzuetan, ordea, emakumeei edo, zehazki, indarkeria bizi duten emakumeei zuzendurik egon da.- Jabetze Eskola eta Emakume Etxeen bueltan martxan zeuden indarkeria bizi duten emakumeei zuzenduriko laguntza taldeak telematikoki mantendu dira hainbat kasutan.- Kasu batzuetan arreta ordutegia zabaldu egin da. Batez ere telefono mugikor bat bideratu denean "ohiko" arretarako edo zerbitzu zehatz bat sortu denean.- Kasu gutxi batzuetan konfinamendu garaiani egokituriko indarkeria bizi duten emakumeei zuzendutako telefono bidezko zerbitzu zehatz bat bideratu da (kontentzio lana eta arreta psikologikoa eskaintzeko).- Aurrez-aurreko arreta oinarritzko zerbitzuetan eta arreta psikologikoan mantendu da kasu zehatz batzuetan.

Jarraipena

Indarkeria bizi duten emakumeen egoeraren jarraipena

Udalerri gehienak	Kasu zehatzak
<ul style="list-style-type: none">- Kasu gehienetan lehendik identifikatutako indarkeria kasuen jarraipena Gizarte Zerbitzuetatik eta telefonoz egin da. <p><i>* Konfinamendu garaian Gizarte Zerbitzuen zama handitu denez, kasu gutxi batzuetan ez da jarraipena egin.</i></p> <p><i>* Erasotzaileen kontrola areagotzean, jarraipena telefonoz egiteko zailtasunak egon dira.</i></p>	<p>Jarraipena egiteko erabilitako beste bide batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none">- Beste zerbitzuen koordinazioaren bidez.- Laguntza psikologiko eta juridiko propioa duten udaletxeek zerbitzu hauetatik jarraipena egiteko aukera izan dute.- Martxan jarritako zerbitzu berri baten bidez (Kasu gutxi batzuk).- Lehendik martxan zeuden laguntza taldeen bidez.



Ondorioak

- Prozesuan parte hartu duten udalerrri guztiek, bide desberdinak erabiliz, indarkeria sexista bizi duten emakumeei zuzenduriko zerbitzuen **difusioa egin dute**.
- Konfinamendua baino lehen indarkeria sexisten egoerak identifikatzeko zeuden **zailtasunak konfinamendu garaian areagotu egin dira**. Horri aurre egiteko neurri desberdinak martxan jarri dira: emakumeen arretan inplikaturik dauden beste eragileekin koordinazioa areagotu; zerbitzu soziokomunitarioen bidez indarkeria egoerak identifikatzen saiatu; aurretik Jabekuntza Eskola eta Emakumeen Etxeen bidez bultzatutako emakumeen sareak bultzatu.
- Emakumeen arretari dagokionez, zerbitzuak telefonoz eskaintzeaz gain, hainbat udalerrri ondorengo **neurri hauek hartu dituzte**: whatsapp-ez komunikatzeko aukera eskaintzen duen telefono bat bideratu; lehendik martxan zeuden laguntza taldeak telematikoki mantendu; zerbitzu zehatz bat bideratu; kasu zehatz batzuetan aurrez-aurreko arreta mantendu.
- **Ezagutzen ziren indarkeria egoeren jarraipena** kasu gehienetan telefonoz egin da. Beste kasu batzuetan ondorengo neurriak erabili dira jarraipena egiteko: beste zerbitzuen bidez (arreta psikologikoa, besteak beste); laguntza psikologikoa eta juridiko propioaren bidez (zerbitzu hori duten udalerrietan); martxan jarritako zerbitzu berri baten bidez; lehendik martxan zeuden laguntza taldeen bidez.



4.3. Udalerrien aholkularitza eskaerak

Prozesuan zehar ondorengo aholkularitza eskaerak jaso dira 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietatik:

- Zortzi udalerrien kontsultak jaso dira.
- Hauetatik 3 konfinamendu garaian identifikaturiko indarkeria kasuen inguruko kontsultak izan dira. Konfinamendu garaian indarkeria egoera hauek zalantzak eta kezkek sortu dituzte bai langile zein politikarien artean. Aholkularitzaren helburua kezkek eta zalantzak argitzea izan da.
- Beste aholkularitza eskaerak prozesuan parte hartu ondoren udalerriek martxan jartzea erabaki duten neurrien ingurukoak izan dira: indarkeria bizi duten emakumeei zuzenduriko zerbitzuen difusioa; indarkeria bizi duten emakumeei zuzenduriko telefono mugikor bat bideratzea; berreraikitze faseari begira zerbitzu eta mezu zehatzen difusioa; prozesuan landutako markoaren difusioa. Kasu honetan, eta zehazki telefono mugikor bat bideratzea nahi izan duen udalerritari eskainitako aholkularitzaren ondoren, udalerrri guztiei zuzenduriko gida lantzea erabaki da.

Ondorioak

- Indarkeria kasu zehatzen inguruan udalerriek egindako kontsulten bidez konfinamendu garaian ezagutu diren indarkeria egoeren aurrean udalerrri txikiek dituzten kezkek eta zailtasunak identifikatu ahal izan dira. Zentzu horretan udaletxeek, kasu askotan, egoera horien berri herritarren bidez jaso dutela kontutan hartu beharra dago. Gainera, herritarren joera politikariengana zuzenean jotzea izan da. Politikariek herritar baten bidez indarkeria egoera baten susmoa dagoela jakin dutenean zalantza eta kezka asko izan dituzte konfinamenduaren testuinguruan erantzun bat emateko.
- Zerbitzuen inguruan jasotako kontsulten ondorioz bigarren atalean aipatzen den *Indarkeria sexista osasun larrialdian – Tokiko Administrazioentzako* gida egitea erabaki da. Esan bezala, gida honetan arreta, detekzioa eta sentsibilizazio eremuetan udalen lanketarako jarraibide batzuk jasotzen ditu. Beraz, udalerriek egindako kontsultek izan dituzten beharrak identifikatu eta hauei erantzun bat emateko aukera eskaini dute.




4.4. Indarkeria sexista kasuen sarrera-bideak konfinamendu garaian


Lan saioak amaitu ondoren hauetan parte hartu zuten udalerriei galdetegi txiki bat bidali zitzaion. Galdetegiaren helburua martxoaren 13tik maiatzaren 22ra udalerriek ezagutu dituzten indarkeria sexista kasuen sarrera bideak identifikatzea izan da.

Galdetegia 37 udalerrik erantzun zuten. Beheko grafiketan ikus daitekeen moduan, hauetako 27 udalerrik 10.000 biztanle baino gutxiago daukate eta 24k ez daukate berdintasun teknikaririk.

Udalerrien tamaina: kasu berriak




Berdintasun teknikaria: kasu berriak




Martxoaren 13tik maiatzaren 22ra arte izandako kasuen inguruko, galdetegia erantzun duten udalerrietatik 20k indarkeria sexista kasu berriren bat ezagutu du. Kasu berririk ezagutu ez duten 17 udalerrietatik 16 udalerrik 10.000 biztanle baino gutxiagoko herriak dira.

Kasu berriak ezagutu dituzten 20 udalerrietatik 11 udalerrik kasu bakar bat ezagutu du, azken hauetatik 9 udalerrik 10.000 biztanle baino gutxiagoko herriak dira. Kasu gehien ezagutu dituen udalerria prozesuan parte hartu duen (22 kasu) udalerririk handiena da. Guztira **65 kasu berri** ezagutu dira.

Kasu berriak ezagutu duten udalerriak




Kasu berrien kopurua





Kasu berrien sarrera-bide nagusia – hau da, kasua ezagutzeko bide nagusia – Ertzaintza izan da, udalerriek aipatu dituzten sarrera bideen %27,3a hain zuzen ere. Gizarte Zerbitzuak – emakumeak zuzenean bertara joan diren kasuak – aipatu diren sarrera bideen %21,2a izan dira. Aipatu beharra dago sarrera bideen % 15,2a herriko eragile edo elkarteak izan direla. Osasun zerbitzuak eta zerbitzu soziokomunitarioak, ordea, ez dira kasu baten ere aipatu.

Kasuen berri izateko bideak



Udalerriek kasu berriak ezagutzeko, %18,2an, ondorengo beste bideak aipatu dituzte:

- Emakumeek zuzenean Emakumeen Etxera jo dutelako.
- Herritarrei udaletxetik egindako deien bidez.
- Familia kide baten bidez.
- Herritarren bidez.
- Komunikabideen bidez.
- Ikastetxearen bidez.
- Gizarte Larrialdien Koordinazioko Zerbitzuaren bidez.

Udalerriek ezagutu dituzten 62 kasu berrietatik **35** Gizarte Zerbitzuetan artatu dira. Hau da, ezagutu diren kasuen **% 53,5a**.

Azkenik, udalerriek ondorengo eranskinak gaineratu dituzte:

“Posta elektronikoaren bidez anaiak Gizarte Zerbitzuekin kontaktatu zuen.”

“Gizarte Zerbitzuekin harremana indartu egin da egoeraren ondorioz.”

“Ertzaintzan salaketa jarri zuenez, abisua iritsi da soilik.”

“Hiru kasuak ezagutu ditut Asanblada Feministaren bidez. Hiru kasutik bat Donostiako Emakumeen Etxera desbideratu da.”

“Kasu bat jaso da eta oso mediatikoa bihurtu da komunikabidetan informazioa azaldu delako. Emakumea ez dugu ezagutu, ez zegoen herrian erroldaturik eta lehendik ez geneukan harremanik.”



“Kasu baten berri prentsaren bidez jakin genuen. Emakumeak ez zuen baimenik eman Ertzaintzan Gizarte Zerbitzuak berarekin harremanetan jartzeko, baina prentsan bere erasoaren informazio asko eta zehatza argitaratu zen. Ez dakigu zeinek eman zuen informazio hori, baina udaletxetik ez zen bidali. Kontuz ibili beharko litzateke kasu horietan prentsan argitaratzen den informazioarekin.”

“Laguntza psikologikoaren behar handia identifikatu dugu eta Emakumeen Etxeetan zerbitzu hori eskaintzen ari bagara ere, ez gara denetara iristen. Beste erakundeetan arlo honetan hutsune handia dagoela azpimarratu nahi dugu. Gogoeta modura, zer gertatuko litzateke Emakumeen Etxeak ez baleude?”

“Sortzen Kotsultoriak kudeatuta Gertu zerbitzuaren bidez jarraipena egin zaie eta sustengua eman zaie indarkeria bizi izan duten emakumeei. Gizarte zerbitzuetatik baliabide eta laguntzak bideratu dira eta Berdintasun sailaren bidez herriko emakumeen sareetan eta antolatzen diren jardueren parte hartzeko informazioa helarazi zaie.”

“Kasu berririk egon ez den arren, aurretiaz ezagutzen zen bat berriro aktibatu da. Gizarte Zerbitzuetatik emakumearen behar izanak betetzeko baliabideetara bideratu nahian gabiltza, baina arazoak daude ofiziozko abokatu bat lortzeko eta, ondorioz, dena bereziki geldo doa.”

Ondorioak

- Galdetegia erantzun duten **37 udalerrietatik 20 udalerrik** konfinamendu garaian indarkeria **kasu berriak** identifikatu dituzte.
- **Guztira 65 kasu berri identifikatu dira**. Aurreikusi zitekeen bezala udalerrri handienak izan dira kasu kopuru gehien identifikatu dituztenak.
- Kasuak ezagutzeko **sarrera-bide nagusia** Ertzaintza izan da (sarrera bideen %27,3a). Bigarren bide nagusia udaletako Gizarte Zerbitzuak (% 21,2a). Herriko eragile eta elkarteak sarrera bideen % 15,2a izan da. Osasun Zentroa eta Zerbitzu soziokomunitarioak, ordea, ez dira izan indarkeria egoerak ezagutzeko sarrera bideak.
- Kasu batzuetan, indarkeria egoerak identifikatzeko Emakumeen Etxeen eta mugimendu feministaren **papera funtsezkoa** izan da.
- Galdetegia erantzun duten 2 udalerrik indarkeria kasua **komunikabideen bidez ezagutu dute**. Kasu horietan komunikabideek izan duten paperak kezka sortzen ditu.
- Konfinamendu garaian emakumeei zuzendutako **laguntza psikologikoaren beharra** lan prozesu osoan zehar azpimarratu da.




5. Ebaluazioa

Prozesuaren balorazioa egiteko parte hartu duten ordezkari, politikari zein teknikari, guztiei galdetegi txiki bat bidali zaie. Ondorengo hauek dira galdetegiaren emaitza nagusiak:


Galdetegia **66** pertsonen erantzun dute (prozesuan parte hartu dutenen %73ak). Horietarik % 42a – guztira 28 – teknikariak izan dira (18 Berdintasun teknikari eta 10 beste postu tekniko bat dutenak). Politikariak erantzun dutenen % 38a izan dira, guztira 25 (13 politikari 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrikoak eta 12, 10.000 biztanle baino gehiago duten udalerrikoak). Beraz, **prozesuan parte hartu zuten teknikarien %62a eta politikarien %52ak erantzun du galdetegia**. Aipatu beharra dago, galdetegia erantzun dutenen artean 13k kargua ez dutela zehaztu.

Galdetegia erantzun duten pertsona kopurua



Burutu diren **lan saioen** balorazioari dagokionez puntuaziorik altuena hizlariak jaso du: batez bestekoa, guztira, 4,5 (Otik 5era bitarteko tartean). Lan saioen dinamizazioak eta antolaketak eta edukiek balorazio berdina jaso dute: guztira 4,3 hain zuzen ere. Kargu edo postuaren arabera, puntuaziorik altuenak teknikariek eman dituzte eta, hauen artean, berdintasun teknikariak izan dira puntuaziorik altuenak eman dituztenak. Hurrengo grafiketan ikus daitekeen modura joera hori errepikatu egiten da. Zentzu horretan aipagarria da berdintasun teknikariak izan direla saio kopuru gehienetan parte hartu dutenak.


Lan saioen balorazioa






Udalerriei bidalitako **dokumentuek** – saioen aktak eta gida – jaso duten balorazioen batez bestekoak hauek izan dira (0 eta 5 bitarteko eskala):

Udalerriek jasotako dokumentuen balorazioa



Lan prozesu osoari dagokionez, ondorengo elementuak baloratu dira: **Landutako edukien baliagarritasun maila, erabilitako lan dinamika** eta **jasotako aholkularitza**. Taulan ikus daitekeen modura edukien baliagarritasun maila izan da puntuaziorik altuena jaso duen eremua, berdintasun teknikari eta 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien politikarien artean.


Prozesu osoa: edukiak, lan dinamika eta aholkularitza



Azkenik, **prozesuarekiko asetze mailari** dagokionez jasotako puntuazioaren batez bestekoa, guztira, 4koa izan da. Kargu eta postuen arabera, puntuazioen arteko ezberdintasunak aurrekoen antzekoak dira: puntuaziorik altuena berdintasun teknikariena izan da eta baxuena 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien politikariena.



Prozesuarekiko asetze maila



Ondorioak

- Orik 5era bitarteko tartean balorazio gehienak **4tik gorakoak** izan dira.
- Orokorrean *jasotako gidaren erabilgarritasun maila, jasotako aholkularitza eta erabilitako lan dinamikak* **puntuaziorik baxuenak** jaso dituzte.
- Puntuaziorik **altuena lan saioen hizlariak** jaso du.
- Aldeak oso esanguratsuak izan ez badira ere, orokorrean **teknikarien balorazioak politikarienak baino altuagoak** izan dira. Teknikarien artean berdintasun teknikariak izan dira puntuaziorik altuenak eman dituztenak. Beraz, lan saio gehienetan parte hartu dutenak izan dira puntuaziorik altuenak eman dituztenak.



6. Prozesuaren sistematizazioaren emaitzak

Egin den lanketaren sistematizazioarekin lotuta, hauek dira, txosten honekin batera, dokumentu nagusiak:

1. Lan saio bakoitzean landutako edukiak zehaztasunez jasotzen dituzten dokumentuak (aktak). Guztira 4.

2. *Indarkeria sexista osasun larrialdian – Tokiko Administrazioentzako gida*

Dokumentu honek, hiru esku hartze eremutan banatuta, gutxieneko jarraibide batzuk jasotzen ditu:

- I. Arreta (batez ere telefonoz edo berehalako mezularitzaren bidez).
- II. Detekzioa (udal mailan sortutako programa soziokomunitarioen bidez).
- III. Sentsibilizazioa (emakumeei zuzendutako mezuen bidez, baina baita herritar guztiei zuzendutako mezuen bidez ere).

3. *Indarkeria sexista konfinamendu garaian toki administrazioan egindako ekimenaren laburpena*

Dokumentu horretan prozesuaren *deskribapena* jasotzen da ondorengo atalak bereiztua: prozesuaren azalpena; parte hartu duten udalerriak; landutako erreferentziazko marko amankomuna; udalerriek izan dituzten zailtasunak eta martxan jarritako esperientziak; politika eta zerbitzuen egokitzapenerako irizpideak; berreraikitze faserako proposamenak.